

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

227. zenbakia

Data 2012-11-28

2 orria

3 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak

GFA-OGASUNA ETA FINANTZA

1045/2012 Foru Agindua, azaroaren 21ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza

Departamentuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak zergen kudeaketan lankidetzan jarduteko era onartzen duena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

1.045/2012 FORU AGINDUA, azaroaren 21ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak zergen kudeaketan lankidetzan jarduteko era onartzen duena.

Zergak kudeatzean izan daitekeen gizarte lankidetzaren bideratzeko, Zerga Administrazioak akordioak izenpetu ditzake beste herri administrazio batzuekin, entitate pribatuekin edo sektore edo interes sozial, laboral, enpresarial edo profesionalen ordezkari diren erakunde eta organismoekin, hala jasotzen baitu Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 89. artikuluan 1. apartatuan.

Bestalde, artikuluko horren 2. apartatuak dio gizarte lankidetzaren bideratzeko zilegi dela teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoa erabiltzea. Lan ildo horren barruan, ezinbestekoa da prozedura arin eta praktikoa ezartzea, gizarte lankidetzaren bidez zergadunei emandako zerbitzua hobetze aldera.

Alde horretatik, egoki iritzi zen Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargoarekin eta kudeatzaile administrazioekin beraiekin lankidetzan ari-
tzeko bideak ezartzea aldizkakoak ez diren zerga aitortzen garaiz aurkezteko obligazioak bete daitezkeen. Horrela, irailaren 16ko 1.014/2009 Foru Aginduaren bidez onartuta geratu ziren dagokion hitzarmena, nahitaez izenpetu beharreko agirien ereduak, eta ibilgailuen matrikulaziorako 565 ereduak aurkezteko baldintzak arautzen dituen eranskina.

Departamentuko foru diputatuak eta Elkargo Ofizialeko lehendakariak 2010eko martxoaren 8an izenpetu zuten hitzarmena. Gizarte lankidetzaren testuinguru horretan, beharrezko ikusten dugu zerga kudeaketako profesionalen jarduketaren esparrua zabaltzea Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztu diren zerga aitortzen telematikoei dagokienez; hain zuzen ere, oinarriak eta prozedura ezarri behar dira jarduketaren esparru horren barruan autolikidazio hauek ere sartu daitezkeen: 60T ereduak –Ondare eskualdaketak–, 60A ereduak –Egintza juridiko dokumentatuak–, eta 60S ereduak –Sozietate eragiketak–. Horrela, foru agindu honen bidez beste eranskin bat gehitzen zaio indarrean dagoen hitzarmenari, II.a, Ondare Eskualdaketaren eta Egintza Juridiko Dokumentatuaren gaineko Zergaren kudeaketarekin lotuta.

Horrez gain, beharrezko iritzi da hitzarmenaren edukian beste zenbait aldaketa sartzea arau mailako erreferentziak eguneratzeko eta baimendutako sarbideen etete sistema bat ezartzeko.

Aldaketa horiek guztiak elkartuta, komeni da foru agindu berri bat onartzea irailaren 16ko 1.014/2009 Foru Agindua ordeztzeko. Guztiarekin ere, bai Hitzarmenak eta bai I. eranskinak indarrean jarraitzen dute orain arte bezala, eta 1. eta 2. eranskin gisa onartutako agirien ereduak eta ordezkartza emateko 001-CG ereduak ere ez dira aldatzen.

Azkenik, 565 ereduaren aurkezpenera formulario bidez ez ezik fitxategi bidez bidaltzeko aukera ere egon dadin, berriro arautzen dira bai borondatezko ordezkarien erroldan alta eta baja emateko prozedura telematikoa eta bai bidezko zerga aitortzen aurkeztekoak.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT

1. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak eta kudeatzaile administrazioek zerga kudeaketan laguntzea.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak zerga kudeaketan lagunduko du, zergen aitorpen-likidazioak aurkeztuz, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 89.2. artikuluan jasotakoari jarraituz.

2. Elkargoko kudeatzaile administrazioek zuzenean lagundu dezakete zeregin horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofiziala bitartekari izan gabe, betiere baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialarekin sinatutako hitzarmenaren edozein eranskini atxikitzea. Zerga eredu jakin batzuk kudeatzeko onartutako eranskinak izan behar dute. Eranskinei atxikitzeak berarekin dakar, beti, zerga kudeaketa arloko lankidetzaren hitzarmenaren klausulak baldintzarik gabe eta osorik onartzea.

b) Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko ordezkari profesionalen erroldan inskribatuta egotea, abenduaren 3ko 1.034/2010 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko borondatezko ordezkarien errolda arautzen duenak, xedatutakoaren arabera.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiak ontzat emandako sinadura elektronikoko balioztatua izatea.

2. artikulua. Lankidetzaren hitzarmena.

1. Honako hauek I. ERANSKIN gisa sartzen dira foru agindu honetan:

a) «Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialarekin zergak kudeatzeko izenpetutako lankidetzaren hitzarmena», foru agindu honetan I. eranskin gisa ageri dena.

Hitzarmenak kudeatzaile interesdunek izenpetzekoak diren agirien ereduak dakartza erantsiak:

«1. agiri erantsia: Datu pertsonalen tratamendu- eragilearen kontratua».

«2. agiri erantsia: Hitzarmenaren eranskinei atxikitzeko agiria».

b) «Hitzarmenaren 1. eranskina: Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren kudeaketa». Eredua aurkezteko obligazioak nola bete eta nola kudeatu arautzen du.

c) «Hitzarmenaren 2. eranskina: Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kudeaketa». Eranskin honetan oinarriak eta prozedura finkatzen dira zergari dagozkion autolikidazioak aurkezteko (60T eredu –Ondare eskualdaketa–, 60A eredu –Egintza juridiko dokumentatua– eta 60S eredu –Sozietate eragiketak–).

3. artikulua. Hitzarmenari atxikitzea eta laguntzaile gisa jarduteko baimena lortu eta galteko baldintzak betetzea.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinarazi behar dio zer kudeatzaile administrazio atxiki diren zergen kudeaketako lankidetzaren hitzarmenaren babesean eta haren garapenean onartutako eranskin bakoitzeko.

Ogasun eta Finantza Departamentuak, Idazkaritza Teknikoaren bitartez, egiaztatuko du dena delako eranskinari atxikitako kudeatzaile administrazioak foru agindu honen 1.2 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela. Baldintzak betez gero, atxikimendua balioztatuko da, eta zerga eredu bakoitza bide telematikoz aurkezteko programan sartzea baimenduko da.

2. Egiaztapen eta tramitazio obligazioak betetzeko garaian edota baimendutako sarbideak erabiltzean anomaliak edo irregulartasunak izan direla erreparatuz gero, Departamentuak, zerga kudeatzen duen zerbitzuaren bitartez, kautelarki eten dezake dena delako programan sartzeko baimena. 10 egun balioduneko epean, eta egiaztapenak aintzat hartuta, kautelazko etena kenduko da edo, bestela, aginduko da espediente hasi dadila emandako baimena indarririk gabe uzteko, hala badagokio. Horrelakoetan, Departamentuak, interesdunari entzun eta gero, baliorik gabe utzi dezake atxikimendua eta emandako baimena kendu ezarrita dauden baldintza guztiak betetzen ez badira, eta baldintza horiek dira, hain zuzen ere foru agindu honen 1.2 artikuluan ezarritakoak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak sinatutako lankidetzaren hitzarmenean edo berau garatzeko onartzen diren eranskinetan jasota dauden gainerakoak.

4. artikulua. Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren aitorpen-likidazioei dagokien 565 eredu aurkezteak.

1. Hitzarmenaren 1. eranskinari (565 ereduari buruzkoari) atxikitzen diren kudeatzaile administratiboek telematikoki bakarrik aurkeztu dezakete 565 ereduaren aitorten-likidazioa, Ogasun eta Finantza Departamentuak haien esku jartzen dituen aplikazioak erabilia.

2. Eranskinari atxikitzen ez diren kudeatzaile administratiboek Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioaren Elkargo Ofizialaren egoitzan aurkeztu behar dute 565 ereduaren aitorten-likidazioa, bidezko frogagiriekin batera.

3. 565 ereduaren aitorten-likidazioa hitzarmenaren 1. eranskinean arautu gabeko kasuetan aurkeztu behar denean, 565 ereduaren aitorten-likidazioa eta dagozkion frogagiriak Ogasun eta Finantza Departamentuan aurkeztu beharko dira; frogagiri horien artean beti egongo da ibilgailuaren salerosketa kontratu pribatua.

5. artikulua. *Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren autolikidazioak aurkeztea (ereduak: 60T –Ondare eskualdaketak–, 60A –Egintza juridiko dokumentatuak– eta 60S –Sozietate eragiketak–).*

1. Hitzarmenaren 2. eranskinari atxikitzen diren kudeatzaile administratiboek bide telematikoz aurkeztu eta ordaindu ditzakete Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren autolikidazioak (60T eredu –Ondare eskualdaketak–, 60A eredu –Egintza juridiko dokumentatuak–, eta 60S eredu –Sozietate eragiketak–); orobat, eskriturak, notariotza-agiriak edo zerga-gaien bestelako dokumentuak ere bidali ditzakete bide telematikoa erabilia.

2. Ogasun eta Finantza Departamentuak autolikidazioa jaso ondoren, ontzat emateko beharrezkoa izango da autolikidazioa eragin duen agiria jada bidalita egotea edo aldi berean bidaltzea autolikidazioarekin batera. Autolikidazioen emaitza ordaintzekoa denean, aurrekoaz gainera, beharrezkoa izango da kontuan zorduntzeko agindu bat emanda egotea betiere sinadura elektroniko balioztatua (ziurtagiri digitala) erabilia.

Foru agindu honetan araututako prozeduraren bidez tramitatzen diren autolikidazioak ordainduko dira haien zordunketa aurkezlearen kontu batean aginduta. Gainera, kontu horrek «Nire ordainketa» pasabidean ordainketak kontuan zordunduta egiteko sistemari atxikitako finantza entitate laguntzaile batekoa izan behar du.

3. Ogasun eta Finantza Departamentuak telematikoki bidaliko du aurkeztutako autolikidazioaren kopia, gainean zigilu elektronikoa jarrita, hura aurkeztu dela eta, kasua bada, zerga ordaindu dela frogatzeko.

6. artikulua. *Ordezkaritza frogatzea eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko ordezkari profesionalen erroldan inskribatzea.*

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioaren Elkargo Ofizialak eta kudeatzaile administratibo atxikiek behar bezala inskribatuta egon behar dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko ordezkari profesionalen erroldan.

2. Foru agindu honek jasotakoaren ondorioetarako, aitorten-likidazioak ordezkari bidez aurkeztu nahi duten zergapekoek 001-CG ordezkariak eredu normalizatua izenpetu behar dute, foru agindu honetan onartutako hitzarmen ereduaren eta bere eranskine(t)an jasotako prozedurari jarraituz. Nolanahi ere, obligazio horrek ez du kentzen irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretuak, Foru Administrazioarekin egitekoak diren jarduketetan identitatea eta ordezkariak nola frogatu arautzen duenak, jasotako prozedurak aplikatzea.

001-CG ereduaren edukia eskritura publikoan jasotzen bada, eskritura horrek 001-CG ereduaren ordeztuko du.

3. Aitorten-likidazioa telematikoki bidali aurretik edota hura egiteko behar den zerga informazioa eskuratu baino lehen, Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioaren Elkargo Ofizialak eta kudeatzaile administratibo atxikiek Ogasun eta Finantza Departamentuko ordezkari profesionalen erroldan inskribatu behar dute telematikoki 001-CG ereduaren erroldan hari alta ematearren.

4. Foru agindu honetan eta hitzarmenaren araututako baldintzei eta prozedurari jarraituz inskribatutako ordezkariak baliozkoak izango dira eta indarra gordeko dute izenpetutako eran, hari eta aitorten-likidazio bat aurkeztu edo ordezkariak baja eman arte. Beraz, ordezkariak hori erabiliz egindako jarduketak guztiak baliozkoak eta eraginkorrak izango dira.

Guztiarekin ere, erroldan inskribatutako ordezkartzaren eraginkortasunean eta balioan eragin dezakeen gorabeherarik gertatuz gero, ordezkatuari zein ordezkariari dagokio departamentua jakinaren gainean jartzea.

5. Aurreko apartatuetan aipatutako ordezkartza frogatzearen ondorioetarako, aplikagarria izango da, ordezkotza izateaz, eta orain arte esandakoaren aurka ez doan guztian, abenduaren 3ko 1.034/2010 Foru Agindua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko borondatezko ordezkarien errolda arautzen duena.

7. artikulua. Ordezkaritza emateko 001-CG eredu normalizatua onartzea.

1. Foru agindu honetan II. ERANSKIN gisa txertatzen da, abenduaren 16ko 1.014/2009 Foru Aginduan onartu zen modu berean (2010eko martxoaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA), Ogasun eta Finantza Departamentuko borondatezko ordezkarien erroldan inskribatzeko erabili beharreko 001-CG eredu.

2. 001-CG ereduaren bidez zergapekoak ordezkartza emango dio Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialari edo kudeatzaile administrazioari zerga aitorten-likidazioak aurkezteko nahiz hitzarmenean eta bere eranskinetan jasotakoaren arabera kasu bakoitzean finkatzen den zerga informazioan sartzea baimentzeko.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak edo dena delako eranskinari atxikitako kudeatzaile administrazioak erroldan inskribatu behar dute telematikoki ordezkartza, eta 001-CG ereduaren kopia bat gorde behar dute, interesdunak edo behar bezala egiaztatutako ordezkariak sinatuta. Azken kasu horretan, ordezkartzaren frogagiriak ere gorde behar dituzte.

8. artikulua. Prozedura telematikoa onartzea.

1. Onaturik geratzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialaren edo kudeatzaile administrazio atxikien ordezkartzak borondatezko ordezkarien erroldan inskribatzeko prozedura telematikoa, bai eta horren oinarri diren eta inskribatutako ordezkartzak kudeatzeko balio duten aplikazio informatikoa ere. III. ERANSKIN gisa ageri dira foru agindu honetan.

2. Onaturik geratzen dira Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Bereziaren aitorten-likidazioak (565 eredu) telematikoki aurkezteko prozedura telematikoa eta aplikazio informatikoa. IV. ERANSKIN gisa ageri dira foru agindu honetan.

3. Onaturik geratzen dira Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren autolikidazioak (60T eredu –Ondare eskualdaketa–, 60A eredu –Egintza juridiko dokumentatua– eta eredu 60S –Sozietate eragiketak–) bide telematikoz aurkezteko jarraitu beharreko prozedura telematikoa eta aplikazio informatikoa. V. ERANSKIN gisa ageri dira foru agindu honetan.

Xedapen gehigarria. Hitzarmenaren indarraldia eta 565 eredu aurkezteko I. eranskinari egindako atxikimenduak.

Foru agindu hau indarrean jartzen denean, bai Kudeatzaile Administrazioen Elkargoak 2010eko abenduaren 8an izenpetutako Hitzarmena eta bai 565 eredu aurkezteko I. Eranskinari erakutsitako atxikimenduak indarrean izango dira orain arteko baldintza berdinetan.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrak gabe geratzen da 1.014/2009 foru agindua, abenduaren 16koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialaren arteko zerga kudeaketako lankidetzaren eta, zehazki, ibilgailuen matrikulaziorako 565 eredu onartzen duena.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2012ko azaroaren 21a.—Helena Franco Ibarzabal, Departamentuko foru diputatua.
(9806) (11073)

FORU AGINDUAREN I. ERANSKINA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KUDEATZAILE ADMINISTRATIBOEN ELKARGO OFIZIALAK ZERGAK KUDEATZEKO IZENPETZEN DUTEN LANKIDETZA HITZARMENA

Donostia, 2010eko martxoaren 8a.

ELKARTUTAKOAK

Alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentua, bertako titularra den Pello Gonzalez Argomaniz jauna ordezkari duena, 2007ko uztailaren 11ko 61/2007 Foru Dekretuak, foru diputatuak nahiz diputatu nagusiordeak izendatu eta Diputatuen Kontseiluko Idazkaritza hautatzekoak, egindako izendapenaren arabera (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 137 zk., uztailaren 12koa).

Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administratiboen Elkargo Ofiziala, Jose Antonio Arana Garcia lehendakariak ordezkaturik. Haren ordezkaritza darama Justiziako, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuak 2002ko maiatzaren 8ko Aginduaren bidez onartutako Estatutuek 85. artikuluan jasotakoari jarraituz (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 145, abuztuaren 1ekoa).

Bi alderdiek hitzarmen hau egiteko legezko ahalmen nahikoa aitortzen diote elkarri, eta ondoko azalpenak ematen dituzte:

ADIERAZPENA

Lehen: Lurralde historikoetako erakundeek beren zerga araubidea mantendu, ezarri eta arautzeko ahalmena dute, hala jasotzen baitu 1. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunak (2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartua). Eta lurralde historikoetako zerga sistema osatzen duten zergak ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea, berrikustea eta biltzea foru aldundiei dagokie, bakoitzari bereak.

Foru Aldundiak Ekonomia Itunaren Legearen eta hori garatzeko xedapenen arabera bere gain hartutako funtzioak beteko ditu Ogasun eta Finantza Departamentuak, salbu Diputatuen Kontseiluari, diputatu nagusiari eta beste departamentu batzuei berariaz ematen zaizkionak, hala jasotzen baitu 2008ko maiatzaren 20ko 34/2008 Foru Dekretuak, Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, 1. artikuluan 2. ataleko a) leturan.

Bigarrena: Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administratiboen Elkargo Ofizialaren xede nagusiak dira kudeatzaile administratiboaren lanbidearen jarduna antolatzea, hura osorik ordezkatzeko eta elkargoko kideen interes orokorrak defendatzea, Justiziako, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuak 2002ko maiatzaren 8an emandako Aginduaren arabera. Funtzio horiek betetzean, elkargoaren asmoa da bere kideek zergadunentzako zerbitzuen hobekuntzan parte hartu eta lagundu dezaten.

Hirugarrena: Zergak biltzeko laguntza soziala bideratzeko, Zerga Administrazioak akordioak izenpetu ahal izango ditu beste herri administrazio batzuekin, entitate pribatuekin edo sektore edo interes sozial, laboral, enpresarial edo profesionalen ordezkari diren erakunde eta organismoekin, hala jasotzen baitu 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 89. artikuluan.

Bestetik, laguntza soziala eman daiteke, besteak beste, aitorpenak, komunikazioak eta bestelako zerga agiriak telematikoki aurkezteko, hala jasotzen baita aurreko paragrafoan aipatutako artikuluan 2. apartatuan.

Laugarrena: Aurrekoaren ondorioz, Ogasun eta Finantza Departamentuak komenigarritzat hartu du, bere eskumenak erabiliz eta kudeaketa eraginkorra balioztatuz, hainbat zergaren kudeaketan laguntzeko baldintzak jartzea. Nolanahi ere, lan horien gaineko eskumena aipatu departamentuarena da, hala jasotzen baitu 2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunarenak.

Gauzak horrela, bi aldeek erabakitzen dute hitzarmen hau sinatzea, ondoko klausulei jarraituz:

KLAUSULAK

Lehen. Kontratuaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da ezartzea Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofiziala (aurrerantzean Elkargoa) lankidetzan aritzeko oinarrizko esparrua, bai Elkargoak eta bai zuzenean Hitzarmena garatzean zerga bakoitzaren aurkezpen obligazioak kudeatu eta betetzeko onartzen diren eranskinetako batean banaka harpidetuz hitzarmen honetara bildutako kudeatzaile administrazioek zerga kudeaketan laguntze aldera.

Bigarrena. Elkargoaren eta hitzarmenera bildutako kudeatzaile administrazioen zuzeneko jardunaren baldintzak eta berezitasunak.

Beharrezkoa izango da zergapekoak ordezkaritza Elkargoaren alde edo kudeatzaile administrazioaren alde formalizatzea, aitorpen-likidazioak aurkezte aldera edota sisteman sartzen diren zergetan horiek bete edo balioztatze behar diren zerga datuak eskuratze aldera.

Elkargoaren edo kudeatzaile administrazioaren aldeko ordezkaritza akreditatzeko, zergapekoak horretarako ezarritako ordezkaritza puntualeko 001-CG eredu normalizatuaren bidez ematen duen baimena beharko da. Dena den, ez da beharrezkoa izango ordezkaritza puntual hori ematea, borondatezko ordezkarien erroldan inskribatuta dagoenean, 001-P ereduaren bidez eta ahalmen nahikoaz (irailaren 15eko 821/2006 Foru Agindua), zergapekoak kudeatzaile administrazioari emandako baimena.

Zuzenean Elkargoak edo kudeatzaile administrazioak inskribatu behar du, telematikoki, departamentuko borondatezko ordezkarien erroldan emandako ordezkaritza puntuala, behin ordezkatuak sinatzekoa den 001-CG eredia beteta.

001-CG ereduaren bidez sinatutako ordezkaritzak eta, hala badagokio, frogagiri osagarriak departamentuaren eskura egon behar dira.

Behin ordezkaritza inskribatuta, Elkargoa edo hitzarmenera bildutako kudeatzaile administrazioa zergapekoaren borondatezko ordezkari gisa arituko da 2005eko martxoaren 25eko 2/05 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 46. artikuluan eta 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Jardunbide Erkideari buruzkoak, 32. artikuluan jasotakoari jarraituz. Elkargoak edo hitzarmenera bildutako kudeatzaile administrazioak gaitasuna izango dute dena delako zergaren aitorpen-likidazioa aurkezteko ordezkaritza eman dioten zergapekoen ezinbesteko zerga informazioa eskuratzeko.

Inskribatutako ordezkaritzari kasu hauetan emango zaio baja; nolanahi, ordezkaritzaren indarraldian egindako jarduketak baliozkoak izango dira:

1. Ordezkatuak ezeztapena adieraztea edo ordezkaritzaren indarraldia iraungitzea.
2. Ordezkariak ordezkaritzari uko egitea.
3. Ofizioz baja ematea, 2006ko irailaren 15eko 821/06 Foru Aginduak 13. artikuluan jasotakoari jarraituz (182 zk.ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, irailaren 25ekoa).

Ordezkarien erroldan izandako bajak ez zaizkie jakinaraziko interesatuei.

Hirugarrena. Elkargoaren eta hitzarmenera bildutako kudeatzaile administrazioen obligazioak.

Izaera orokorreaz, obligazio hauek izango dituzte:

— Jarduketak egitean betetzea indarrean dagoen araudiak une bakoitzean jartzen dituen baldintzak, departamentuak emandako irizpide eta jarraibideak, eta, gainera, hitzarmen honen zazpigarren klausulan jasotako batzorde mistoak hartutako erabakiak gauzatzea, horretarako jasotako epeetan.

— Datu pertsonaletan sartzeari, ordezkariak dakartzen obligazioak betetzeak hala exijitzen duenean bakarrik.

— Beren gain hartzea Elkargoaren edo kudeatzaile administratiboaren egoitzan aurkeztutako agiriak zaintzeko erantzukizuna. Dokumentazio hori Ogasun eta Finantza Departamentuaren eskura egongo behar da beti, hura eskatuz gero aurkeztean atzeratu gabe.

— Erantzutea hitzarmenean edo horren edozein eranskinetan jasotako edozein obligazio betetzearen ondorioz sor daitezkeen kalte guztiez.

Atal honetan jasotako edozein obligazio ez betetzea arrazoi nahikoa da Ogasun eta Finantza Departamentuak egoki deritzen neurriak hartzeko, bai eta hitzarmenera bildutako kudeatzaile izaera deuseztatzeko edo ez betetzeagatik hitzarmena amaitzeko ere.

Laugarrena. Elkargoaren obligazioak.

— Aldizka, jarduketan berri ematea Ogasun eta Finantza Departamentuari, horrek ematen dituen jarraibideen eta formatuaren arabera.

— Zaintzea hitzarmenera bildutako kudeatzaileek hitzarmen honen klausulak eta haren eranskinak zuzen betetzen dituztela.

— Ogasun eta Finantza Departamentuko Idazkaritza Teknikoari jakinaraztea eta helaraztea hitzarmenaren babesean eta garapenean onartutako eranskin bakoitzeko kudeatzaile administratiboak bildu izanaren frogagiria, hori balioztatze aldera.

Atal honetan jasotako edozein obligazio ez betetzea arrazoi nahikoa da Ogasun eta Finantza Departamentuak egoki deritzen neurriak hartzeko, bai eta ez betetzeagatik hitzarmena amaitzeko ere.

Bosgarrena. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren obligazioak.

Izaera orokorrean, obligazio hauek hartzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak:

— Bere gain hartzea agindutako jarduketan zuzendaritza, aholkulariek hala eskatzen dutenean.

— Elkargoari eta kudeatzaile administratiboari ematea hitzarmenean jasotako zereginak burutzeko behar den kolaborazioa eta laguntza osoa.

— Jarraipena egitea hitzarmen honetan jasotako kudeaketari eta exekuzioari.

— Gainbegiratzea Elkargoak eta bildutako kudeatzaile administratiboek hitzarmen honen inguruan egindako jarduketak.

— Egiaztatzea dena delako eranskinera bildutako kudeatzaile administratiboak(e)koaren(e)ko Foru Aginduko 1.2 artikuluan jarritako baldintzak betetzen ote dituen. Baldintzak betez gero, departamentuak atxikimendua balioztatuko du eta baimena emango dio zerga ereduaren aurkezpen telematikorako programan sartzeko.

Seigarrena. Datu pertsonalak babestea.

Elkargoak hitzarmen hau gauzatzean Ogasun eta Finantza Departamentuaren ardurapeko datu pertsonalak eskuratzea ez da hartuko datu horien komunikaziotzat, hala jasotzen baitu 12. artikuluan 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoak. Elkargoa tratamendu eragileztat hartuko da, aipatu lege organikoak jasotako 3. artikuluan jasotakoari jarraituz.

Hitzarmen honi erantsitako agiri batean, Elkargoak datu pertsonalak tratatzeko kontratua araututa dago.

Zazpigarrena. Hitzarmena gauzatzeko antolaketa. Gatazkak konpontzea.

Hitzarmen hau gauzatzeko behar diren ekintzak koordinatzearen, eta, orobat, horiek gainbegiratu, jarraitu nahiz kontrola egiteko, koordinazio eta jarraipen batzorde mistoa eratuko da, sei ordezkari osatua. Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak hiru ordezkari izendatuko ditu, eta Elkargoak beste hiru izendatuko ditu.

Aholkulari gisa, eta hitz egiteko aukeraz, egoki jotzen den beste edozein pertsonak hartu ahal izango du parte batzordean.

Batzordea bi aldeetako edozeinek eskatuta bilduko da, sei hilean behin gutxienez, lankidetzaren emaitzak eta gorabeherak aztertzeko.

Hitzarmen hau interpretatu eta betetzerakoan gerta litezkeen desadostasunak koordinazio eta jarraipen batzorde mistoak argituko ditu.

Bere funtzionamendu eta erregimen juridikoari dagokionez, eta klausula honetan espresuki ezarri ez den guztian, koordinazio eta jarraipen batzorde mistoak azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, II. tituluaren II. kapituluaren xedatutakoaren arabera jokatu du.

Zortzigarrena. Hitzarmena eguneratzea eta aldatzea.

Hitzarmenaren edukia edozein momentutan eguneratu edo aldatu daiteke, erakundeak ados jarrita. Horretarako, aldeek dena delako eranskina izenpetuko dute.

Dena den, koordinazio eta jarraipen batzorde mistoak erabaki ditzake zerga kudeaketarekin lotutako jarduketaren inguruan sor daitezkeen aldaketa teknikoak, baldin eta agindutako jardueren funtsezko aldaketa ez badakarte. Horretarako, aldaketak onartzen dituen batzorde horren bileren aktak erantsiko zaizkio lankidetzari hitzarmenari.

Bederatzigarrena. Indarraldia.

Hitzarmenak urtebeteko indarraldia izango du, eta zuzenean berrituta geratuko da urtez urte aldeetako edozeinek ez badu gaztigatzen gutxienez hilabete lehenago indarraldia amaitzen denetik aurrera.

Hamargarrena. Hitzarmenaren eraginkortasuna.

Hitzarmen honek ondorioak izango ditu eta sinatzaileak behartuko ditu, gehienez hiru hilabeteko epean, onartzen diren eranskin bakoitzean jasotako funtzioak hasi eta garatzeko behar den aplikazio informatikoa ezarri eta abian jartzen denetik aurrera.

Hamaikagarrena. Zuzenbide arauak.

Lankidetzari hitzarmen honek izaera administratiboa du. Horren xedea berariaz geratzen da Sektore publikoko kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeak 4.1.c) artikuluan zehaztutako eremutik kanpo. Hitzarmen honetako zazpigarren klausulan jasotako koordinazio eta jarraipen - batzorde mistoak ebatziko ditu hitzarmenaren aplikazio eta exekuzioari buruzko auziak.

Adostasunaren frogagarri, bi alderdiek ale bikoiztua sinatzen dute goiburuan adierazitako datan eta tokian.

HITZARMENAREN 1. ERANSKINA

DATU PERTSONALEN TRATAMENDU ERAGILEAREN KONTRATUA

Donostia, 20.....koarena.

ELKARTUTAKOAK

Alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentua, bertako titularra den Pello Gonzalez Argomaniz jauna ordezkari duena, 2007ko uztailaren 11ko 61/2007 Foru Dekretuak, foru diputatuak nahiz diputatu nagusiordeak izendatu eta Diputatuen Kontseiluko Idazkaritza hautatzekoak, egindako izendapenaren arabera (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 137 zk., uztailaren 12koa).

Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administratiboen Elkargo Ofiziala, Jose Antonio Arana Garcia lehendakariak ordezkatur. Haren ordezkaritza darama Justiziako, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuak 2002ko maiatzaren 8ko Aginduaren bidez onartutako Estatutuek 85. artikuluan jasotakoari jarraituz (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 145, abuztuaren 1ekoa).

Bi alderdiek elkarri aitortzen diote aurrekari hauekin arabera kontratu hau izenpetzeko nahiko ahalmen juridikoa.

AURREKARIAK

Lehen: Data honetan bertan alderdiek lankidetzat hitzarmen bat (aurrerantzean Hitzarmena) sinatu dute zerga kudeaketaren arloan.

Bigarrena: Hitzarmena gauzatzeak berarekin dakar Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administratiboen Elkargo Ofizialari atxikitako pertsonalak sarbidea izatea Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko datu pertsonaletara.

Eta, 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalen babesari buruzkoak, 12. artikuluan jasotakoa betetze aldera, bi alderdiek adostu dute hitzarmenaren I. eranskina onartzea. Hona hitzarmenaren klausulak:

KLAUSULAK

Lehen. Xedea.

Eranskin honen xedea da baldintzak jartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administratiboen Elkargo Ofizialak kontratu nagusiari lotutako prestazioaren ondorioz eskuratzen dituen datu pertsonalak tratatzeko, eta enpresak gorde beharreko konfidentzialtasunaren esparrua zehaztea.

Hitzarmen hau gauzatzean Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administratiboen Elkargoak Ogasun eta Finantza Departamentuaren ardurapeko datu pertsonalak eskuratzea ez da hartuko datu horien komunikaziotzat, hala jasotzen baitu 12. artikuluan 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoak. Elkargoa tratamendu eragiletzat hartuko da.

Bigarrena. Datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta tratamendua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administratiboen Elkargo Ofizialak aitortzen du kontratu nagusia gauzatzean eskuratzen duen informazio osoa eta, bereziki, informazio pertsonala erabat konfidentziala dela eta, horren arabera, ardura osoa hartuta, obligazio hauek hartzen dituela:

— Informazioa bideratzea lankidetzat hitzarmena betetzera eta, nolana ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak emandako jarraibideen arabera; beraz, informazioa ezin du erabili ez beretzat, ez beste batzuei datuak edo informazioa emateko eta ez hura gordetzeko.

— Tratamendu eragile gisa dagokion edozein obligazio betetzea, Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoaz eta 2007ko abenduaren 21eko 1,720/2007 Errege Dekretuaz onartutako haren Erregelamenduak jasotzen dutenari jarraituz.

— Informazioaren berri ematea bakarrik hori ezagutu gabe beren obligazioak bete ezin dituzten langileei; horretarako, sekretu betebeharrak bera betearazi behar diete datu tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen duten beren langileei.

— Konfidentzialtasun betebeharrak indarrean jarraituko du, nahiz eta lankidetzat hitzarmena edozein arrazoi dela medio amaitu.

Hirugarrena. Segurtasun neurriak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak konpromisoa hartzen du Administrazioak emandako dokumentazioan jasotako informazioaren konfidentzialtasuna gordetzeko beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolaketazkoak hartzeko, datu pertsonalen segurtasuna gorde eta haien aldaketa, galera edo baimenik gabeko sarbidea bermatze aldera.

Laugarrena. Iraupena.

Eranskinak Hitzarmenaren iraupen bera izango du.

Behin edozein arrazoi dela medio eranskin hau amaituta, Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak berehala itzuli behar dio, Ogasun eta Finantza Departamentuari, kontratua gauzatzean eskuratu duen informazio osoa, kontuan hartu gabe zer euskarri erabili den.

Bosgarrena. Erantzukizuna.

Harik eta aipatu informazioa itzuli arte, Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak informazio hori behar bezala gordetzeaz erantzungo du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak erantzungo du berak edo enpresa esleipendunarekin duen harremana dela medio informazioa eskuratzen duten langileek kontratu honetan jasotako edozein obligazio ez betetzeak dakartzan kalte-ordain guztiez.

Adostasun seinale gisa, eta hitzartutakoa behar den eran jasota gera dadin, kontratu hau ale bikoiztuan izenpetzen da, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua

Sin.: Pello González Argomaniz

Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialeko lehendakaria

Sin.: José Antonio Arana García

HITZARMENAREN 2. ERANSKINA

HITZARMENAREN ERANSKINERA BILTZEKO AGIRIA. Gipuzkoako FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KUDEATZAILE ADMINISTRATIBOEN ELKARGO OFIZIALAK ZERGAK KUDEATZEKO IZENPETZEN DUTEN LANKIDETZA HITZARMENA

..... jaunak/andreak, (hala badagokio) enpresaren izenean eta ordezkaritza (IFZ:), adierazten du eranskinera bildu nahi duela. Aipatu eranskina da, hain zuzen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak sinatutako (e)ko aitortze-likidazioen eredua aurkezteko obligazioak kudeatu eta betetzekoa.

Eranskinera biltzeak berarekin dakar, beti, Lankidetzaren Hitzarmenaren zerga kudeaketako arloko klausulak baldintzarik gabe eta osorik onartzea. Izan ere, eranskina aipatu lankidetzaren babesean eta garapenean onartua da.

Sinatzaileak hitzarmenaren eta bera biltzen den eranskinaren eduki osoa ezagutzen du, eta agiri horietatik datozen obligazioak bere gain hartzen ditu berariaz eta argi eta garbi.

....., 20.....(e)koarena.

Sin.:

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAK
ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KUDEATZAILE ADMINISTRATIBOEN

ELKARGO OFIZIALAK ZERGAK KUDEATZEKO IZENPETZEN DUTEN LANKIDETZA HITZARMENAREN 1. ERANSKINA

ZENBAIT GARRAIOBIDEREN GAINEKO ZERGA BEREZIAREN KUDEAKETA (565 EREDUA)

Lehen. Eranskinaren edukia.

Eranskin honen xedea da zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren aitortpen-likidazioa (565 eredua) aurkezteko oinarriak eta prozedura finkatzea, aurkezpen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialaren bitartez egin edo bere garaian ezarriko den eran 1. eranskin honetara biltzen diren kudeatzaile administrazioen bidez egin.

Bigarrena. Eremu objektiboa.

Ibilgailu motordun berriek Espainian duten behin betiko lehen matrikulazioa da 1. eranskin honetako eremu objektiboa, matrikulazio horrek eratzen baitu zerga-gaia. Ondoko salbuespenak egiten dira, Hitzarmenaren Koordinazio eta Jarraipen Batzorde Mistoak aldatu ditzakeenak, eremu objektiboaren barruan sartuz edo salbuespen kasuetatik kanpo utziz:

— Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan erositako ibilgailu berrien edo erabilien behin betiko matrikulazioa.

— Interesatuak zuzenean inportatzen dituen ibilgailuen matrikulazioa.

— Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari lotu gabeko edo salbuetsitako matrikulazio hauek:

* Indar armatuek, Estatuko segurtasun indarrek, autonomia erkidegoetakoek, udal entitateetakoek eta aduana zaintzakoek defentsa, zaintza eta segurtasun eginkizunak betetzeko erabiltzen dituzten ibilgailuak.

* Matrikula diplomatikoaren arauen pean matrikulatzen diren ibilgailuak.

* Titularraren ohiko bizilekua atzeritik Gipuzkoako Lurralde Historikora aldatzeagatik matrikulatzen diren garraiohideak.

Era berean, hitzarmen honen eremu objektibotik kanpo geratzen dira zergaren subjektu pasiboek Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuan zuzenean egiten dituzten jarduketak, horietan Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofiziala edo hitzarmen honetara bildutako kudeatzaile administrazioak bitartekari ez badira.

Hirugarrena. 565 eredua aurkezteko prozedura.

1. Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak zentralizatuko du zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren aitortpen-likidazioen aurkezpenean (565 eredua), 1. eranskin honetara bildu gabeko kudeatzaile administrazioek tramitatzen dituztenean. Eranskin honetako zazpigarren klausulan xedatutakoa eta Elkargoaren beraren barne arauak aplikatuko dira aurkezpenean.

Eranskin honetara biltzen ez diren kudeatzaile administrazioek behar bezala beteta aurkeztu behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialaren egoitzan zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren aitortpen-likidazioa (565 eredua), eta aitortpen-likidazioari beharrezko dokumentazio originala eta 001-CG eredua erantsi. Eredu hori beteta aurkeztuko da, eta zergapekoaren sinadura eraman beharko du, horrekin adieraziko baita Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialari eman diola ordezkaritza.

2. Bestalde, eranskin honetara biltzen diren kudeatzaile administrazioek bide telematikoz bakarrik aurkeztu dezakete Ogasun eta Finantza Departamentuan zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren aitortpen-likidazioa (565 eredua), betiereren(e)ko2009 Foru Aginduak artikuluan xedatutakoari jarraituta.

Zergapekoaren ordezkariak jarduteko, kudeatzaile administratiboak ordezkariak jaso behar du haren gainetik 001-CG ereduaren bitartez, aurreko paragrafoan aipatutako foru aginduan eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak zergak kudeatzeko izenpetutako lankidetzak hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

Laugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak eta eranskin honetara bildutako kudeatzaile administrazioek egin beharrekoak.

1. Honako zeregin zehatzak izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak zenbait garraio bideren gaineko zerga bereziaren kudeaketari dagokionez:

1.1. Zenbait garraio bideren gaineko zerga bereziaren aitortze-likidazioa (565 ereduak) jasotzea, JATORRIZKO DOKUMENTAZIOAREKIN batera, eta agiri bakoitzari dagokionez honako egiaztapenak egitea:

a) Faktura agiria.

Honako egiaztapenak egin behar dira:

— Agiria baliagarria dela fakturazioari buruzko araudian ezarritako obligazioen ikuspegitik (saltzailearen eta eroslearen datuak, faktura zenbakia, fakturaren data, BEZ zehaztua, ...).

— Lehen matrikulazioa bere izenean egiteko aipatzen den pertsona edo entitatearen datuak bat datozela fakturako bezeroaren datuekin, emandako NA/IFZrekin eta 565 ereduaren subjektu pasiboari buruz adierazitakoekin. Helbideak desberdinak badira, beharrezkoa izango da errolda agiria aurkeztea.

— Ibilgailuaren datuak berdinak direla bai fakturan, bai IAT fitxan, bai 565 ereduaren. Bastidore zenbakia, marka eta modeloa alderatuko dira.

b) Ibilgailuaren Azterketa Teknikoaren (IAT) fitxa.

Honako egiaztapenak egin behar dira:

— Bastidore zenbakia fakturan eta 565 ereduaren.

— Ibilgailuaren sailkapena, 565 ereduaren adierazi den egoera badagokion edo ez egiaztatzen (zergari lotu gabea, salbuetsia, murriztua, inprimakian hala eskatu bada).

— 565 ereduaren adierazitako zerga tasa ibilgailu motari dagokiona dela, zein den CO₂ren isurketa tasa (baldin eta ibilgailu horretarako ez badago fabrikatzaileak eginiko ziurtagiririk), zilindrada eta potentzia, kasuan kasu.

— Ondoko ibilgailuak direnean, zergari ez lotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen behar da:

a) N1 kategoriako ibilgailuak eta misto moldagarriak.

Begiratu da ibilgailuak badituela zergari ez lotzeko ezaugarriak, eta jarduerak ekonomikoren bati atxikita dagoela.

b) Industria, merkataritza, nekazaritza, klinika edo zientzia alorrean bakarrik erabiltzeko ibilgailuak:

Zerga Administrazioak behar bezala homologatutako ibilgailuak direla edo bakar-bakarrik erabilera horietakoren bat dutela begiratu behar da.

c) Salerosketa kontratua edo eskaria.

Honako hauek egiaztatu beharko dira:

— Eroslearen datuak: Egiaztatu faktura bere izenean egina dagoela eta datuak bat datozela IFZrekin. Eskaria onartzen duen sinadura ere begiratuko da.

— Kontratuaren datuak: Zenbakia, data, saltzailearen identifikazioa, etab.

— Ibilgailuaren datu guztiak (marka, modelo, osagarriak, kolorea, aukerak, etab.), eta erosleak eskatutako berezitasun guztiak.

— BEZaren oinarri ezargarria eta aplikatutako BEZa, fakturan adierazitakoarekin bat etorri behar duena.

— Zenbait garraibideren gaineko zerga bereziarengatik kontratuan adierazitako zenbatekoa.

— Matrikulazioaren kudeaketagatik ordezeko kasuetan ordaindu beharreko zenbatekoa, ordainketa nork egingo duen adierazita.

— Azken prezioa eta ordaintzeko era.

— Zati bat ordaintzeko ibilgailu erabilia eman den, eta zer balorazio duen. Matrikula adieraziz identifikatuko da.

d) Leasing/renting kontratueta, halakorik bada:

Honako hau egiaztatu beharko da:

— Faktura entitate errentatzailearen izenean egina dagoela.

— Errentariaren datuak berdinak direla leasing kontratuan eta bere NA/IFZn (sozietate izena, helbidea, IFZ).

— Inbertsioaren balioa alderatuko da fakturaren edo fakturen oinarri ezargarriarekin eta, hala badagokio, BEZaren oinarri ezargarriarekin gehi matrikulazio zergarekin.

— Hornitzailearen datuak egiaztatuko dira fakturan eta kontratuan, baita finantzatu beharreko ondasunaren deskribapena eta bastidore zenbakia ere.

e) Ondoko ibilgailuak direnean, Zergatik salbuesteko baldintzak betetzen direla egiaztatu behar da:

— Taxi, autotaxi edo autoturismotzat hartzen diren ibilgailu automobilak.

Egiaztatu behar da gutxienez 4 urte igaro direla beste ibilgailu bat antzeko baldintzetan matrikulatu zenetik edo erabateko ezbeharragatik behin betiko baja eman zitzaionetik. Erabateko ezbeharra trafikoaren bajarekin eta aseguruaren txostenarekin frogatu behar da.

4 urte baino gutxiago igaro badira, salbuespena eman ahal izango da aurreko ibilgailuari dagokion zerga likidatu eta gero.

Salbuespena behin betiko eman dadin, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da 3 hilabeteko epean gehienez:

* Zirkulazio baimena.

* Alta jarduera ekonomikoetan.

* Udal lizentzia.

* Fitxa teknikoa, taximetroa jarri izana adierazita.

— Kontraprestazio bidezko gidarien irakaskuntzarako bakarrik matrikulatutako ibilgailu automobilak.

Salbuespena behin betiko eman dadin, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da 3 hilabeteko epean gehienez:

* Zirkulazio baimena.

* Udal lizentzia.

* Alta jarduera ekonomikoetan edo azken ordainagiria.

- * Jarduera hasten bada, BEZaren erroldan eskatutako alta.
- * Fitxa teknikoa, kontrol bikoitza jarri izana adierazita.

— Alokairu jardueretarako bakarrik matrikulatutako ibilgailu automobilak.

Salbuespena behin betiko eman dadin, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da 3 hilabeteko epean gehienez:

- * ASC baimena, Garraio Departamentuak emana.
- * Alta jarduera ekonomikoetan edo azken ordainagiria.
- * Jarduera hasten bada, BEZaren erroldan eskatutako alta.
- * Zirkulazio baimena.
- * Fitxa teknikoa, jardueran alta hartu izana adierazita.

— Minusbaliatuen izenean eta beraiek bakarrik erabiltzeko matrikulatutako ibilgailu automobilak.

Egiaztatu beharko da %33ko edo hortik gorako minusbaliotasunari buruzko agiria aurkeztu dela, eta gizarte zerbitzu eskudunek egina dela. 10 urtetik gorako antzinatasuna duten ziurtagiriak ez dira onartuko, ezta ere berrikuspen data gainditua dutenak ere.

%33ko minusbaliotasunak edo handiagoak eragindakotzat hartzen dira honako hauek: Gizarte Segurantzako pentsiodunak, ezintasun iraunkor osoagatik, erabatekoagatik edo elbarritasun handiagatik pentsio bat aitortua dutenean, eta klase pasiboetako pentsiodunak baldin eta lanerako ezintasun iraunkorragatik edo baliaezintasunagatik jubilazio edo erretiro pentsio bat aitortua badute.

Orobat, egiaztatu behar da gutxienez 4 urte igaro direla beste ibilgailu bat antzeko baldintzetan matrikulatu zenetik edo erabateko ezbeharragatik behin betiko baja eman zitzaionetik. Erabateko ezbeharra trafikoaren bajarekin eta aseguruaren txostenarekin frogatu behar da.

4 urte baino gutxiago igaro badira, salbuespena eman ahal izango da aurreko ibilgailuari dagokion zerga likidatu eta gero.

1.2. Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari dagokion zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzea, eta aitopen-likidazioa zigilatzea.

Ibilgailuak familia ugariak bakarrik erabiltzeko izateagatik oinarri ezargarria %50 murriztea eskatzen denean, egiaztatu behar da ibilgailuak araudiak ezarritako beharkizunak betetzen dituela, eta bi agiri hauek aurkezten direla: Familia ugariaren ziurtagiri eguneratua (5 urte baino gutxiago) eta bizikidetzatza agiria.

Orobat, horrelako kasuetan egiaztatu behar da gutxienez 4 urte igaro direla beste ibilgailu bat antzeko baldintzetan matrikulatu zenetik edo erabateko ezbeharragatik behin betiko baja eman -zitzaionetik. Erabateko ezbeharra trafikoaren bajarekin eta aseguruaren txostenarekin frogatu behar da.

4 urte baino gutxiago igaro badira, salbuespena eman ahal izango da aurreko ibilgailuari dagokion zerga likidatu eta gero.

1.3. Astean tramitatzen diren aitopen-likidazioei buruzko informazioa bidaltzea astero Ogasun eta Finantza Departamentuari, erabakiko diren baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoen bitartez. Koordinazio eta Jarraipen Batzorde Mistoak erabakiko du zer baliabide eta zer formatu erabiliko diren informazioa bidaltzeko, eta beste maiztasun bat ere ezarri ahal izango du bidalketak egiteko.

Koordinazio eta Jarraipen Batzorde Mistoak erabakiko du zein momentutan hasiko den Kudeatzaile Informatikoen Elkargo Ofiziala 565 ereduko datuak grabatzen eta transmititzen, eta noiz hasiko den kontraste kodea ematen. Aitopen-likidazioan kontraste kodea agertzeak hura zigilatzea ordeztuko du.

2. Bere aldetik, hitzarmenera bildutako kudeatzaile administratiboak, behin jatorrizko dokumentazioa jaso eta 1.1 eta 1.2 apartatuetan aipatutako egiaztapenak egin ondoren, aitopen-likidazioa beteko du, diru sarrera egingo du ordainketa pasabidearen bitartez, eta telematikoki bidaliko du eredu.

3. Hitzarmenera bildutako kudeatzaile administratiboek edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administratiboek Elkargo Ofizialak 1. eranskin honetako bigarren klausularen arabera kudeatzekoak ez diren ibilgailuen dokumentazioa jasotzen badute eta haien aitorten-likidazioak tramitatzen badituzte, ohiko bitartekoak erabiliz aurkeztu beharko dituzte aitorten-likidazioak Ogasun eta Finantza Departamentuan.

Bosgarrena. Zerga informazioa ematea.

Zergapekoek ordezkaritza eman badiete zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren aitorten-likidazioa aurkezteko, Kudeatzaile Administratiboek Elkargo Ofizialak eta eranskin honetara bildutako kudeatzaile administratiboak ahalmena dute haien zerga informazioa ezagutzeko, betiere zergaren tipologia desberdinak hobeto eta errazago kudeatzeko bada.

Seigarrena. Subjektu pasibo ez-zergadunen tratamendua.

Kudeatzaile Administratiboek Elkargo Ofiziala eta 1. eranskin honetara biltzen diren kudeatzaile administratiboak inoiz ere ezingo dira Gipuzkoako Foru Ogasunean zergadun gisa ageri ez diren subjektu pasiboek izenean jardun, zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren aitorten-likidazioak (565 eredu) telematikoki aurkezteko, 001-CG eredu normalizatuaren bitartez.

Zazpigarrena. Araubide juridiko aplikagarria.

— Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren inguruan aplikaziozkoa den araudia.

— 1.014/2009 Foru Agindua, abenduaren 16koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administratiboek Elkargo Ofizialak zergak kudeatzeko izenpetu beharreko lankidetzak hitzarmenaren eredu onartu eta ordezkaritza inskribatzeko prozedura eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren aitorten-likidazioak bide telematikoz aurkezteko prozedura ontzat ematen dituenak.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administratiboek Elkargo Ofizialak zergak kudeatzeko 2010eko martxoaren 8an izenpetutako lankidetzak hitzarmena.

Gipuzkoako FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA
FINANTZA DEPARTAMENTUAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KUDEATZAILE ADMINISTRATIBOEN ELKARGO OFIZIALAK ZERGAK KUDEATZEKO
IZENPETUTAKO LANKIDETZA
HITZARMENAREN 2. ERANSKINA

ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN
GAINEKO ZERGAREN KUDEAKETA (60T, 60A eta 60S EREDUAK)

Lehen a. Eranskinaren edukia.

Eranskin honen xedea da oinarriak eta prozedura finkatzea 2. eranskin honi bertan ezarritako eran atxikitzen diren kudeatzaile administratiboek Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren autolikidazioak aurkez ditzaten (60T eredu –Ondare eskualdaketa–, 60A eredu –Egintza juridiko dokumentatua– eta 60S eredu –Sozietate eragiketak–).

Bigarrena. Eredu objektiboa.

2. eranskin honen eredu objektiboak 60T, 60S eta 60A eredu bitartez aitortzen diren zerga-gaiak hartzen ditu, salbuespenik gabe.

Hirugarrena. 60T, 60A eta 60S ereduak aurkezteko prozedurak.

Eranskin honi atxikitzen diren kudeatzaile administratiboek bide telematikoz aurkeztu behar dituzte Ogasun eta Finantza Departamentuan Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren autolikidazioak (60T eredu –Ondare eskualdaketa–, 60A eredu –Egintza juridiko dokumentatua– eta 60S eredu –Sozietate eragiketak–).

Zergapekoaren ordezkari gisa jarduteko, atxikitako kudeatzaile administratiboak ordezkari-tza eduki behar du bere alde emanda 001-CG ereduaren bitartez, non eta aurretik ez den inskribatu, 001-P ereduaren erabilera, ahalmen nahikoaz emandako baimena.

Laugarrena. Eranskin honi atxikitako kudeatzaile administratiboek egin beharreko zereginak.

1. Eranskinari atxikitako kudeatzaile administratiboek zeregin zehatz hauek izango dituzte Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kudeaketarekin lotuta:

1.1. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren aitorpen-likidazioak (60T, 60S eta 60A ereduak) prestatu eta jatorrizko dokumentazioarekin batera aurkeztu, eta dokumentu eta eredu bakoitzari dagokionez honako lanak bete:

a) Aitorpen guztiak (60T, 60S eta 60T ereduak) berrikusi alde aurretik.

— Oro har, egiaztatu behar dute aurkeztu den dokumentazioa baliozkoa dela ondorio juridikoetarako, eta aitorpen-likidazioan adierazitako datuak bat datozela eskrituran, agiri pribatuan edo agiri judizialean ageri direnekin, betiere Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren araudian eta eredu bakoitzari dagozkion jarraibideetan ezarritakoa kontuan hartuta.

— Begiratu behar dute badagoela korrespondentziarik zerga-gaiaren eta aurkeztutako autolikidazio ereduaren artean.

— Ereduaren jarraibideak kontuan hartu, hura erabat bete arte.

b) Orobat, eta aurreko a) letran adierazitako egiaztapen orokorren katerik gabe, kudeatzaile administratiboek ondoko hau egin beharko dute hala dagokionean:

— Sozietateak desagiteko edo kapitala murrizteko 60S ereduaren, egiaztatu behar dute subjektu pasiboak ondasunak eta eskubideak jaso dituzten bazkideak direla, eta oinarri ezargarria bat datorrela ondasun eta eskubide horien balio errealekin, gasturik eta zorrik kendu gabe.

— Etxebizitzaren salmentari buruzko 60T ereduaren tasa murriztua aplikatzen bada, egiaztatu behar dute tasa hori aplikatzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla (ohiko etxebizitzari emandako erabilera, lehendik tasa murriztua ez aplikatzea, etxebizitzaren azalera, familia ugariaren titulua, edo bere unean ezar daitezkeen bestelakoak). Orobat, egiaztatu behar dute etxebizitzarekin batera eskualdatu eta tasa murriztuan sartu nahi diren garajeak (bi gehienez) etxebizitzaren eraikin berean daudela.

— Bigarren eskuko ondasun higiezinaren eskualdaketa enpresariak egin dituztenean, begiratu behar dute eskualdaketa horiek BEZetik salbuespena daukan edo salbuespenari uko egin zaion. Helburua izango da zergatik tributatu den argitzea: Ondare eskualdaketaengatik (60T) edo egintza juridiko dokumentatuengatik (60A).

— Irabazpidezko sozietateen desagiteetan (60T ereduaren) ezkontideetako batek soberazko esleipenik jasotzen badu, egiaztatu behar dute zergapetutako oinarria zuzena dela eta soberakinari dagokion tasa aplikatu zaiola. Soberazko esleipena ez badago zergari lotuta bere osoan zein zati batean, egiaztatu behar dute kode zibilaren 1062. artikuluan aipatzen diren baldintzak betetzen direla (ondasuna zatietan izatea, bati bakarrik esleitzea, eta soberakina diruz ordaintzea).

— Egiaztapen hori bera egin beharko dute, orobat, herentzia banaketek eta kondominio iraungitzeak soberazko esleipena izan dutenean, hala oinarriari eta tasa aplikagarriari dagokionez nola aipatutako 1062. artikuluari dagokionez. Zergari lotuta dagoen soberakina 60T ereduaren bitartez zergapetuko da, eta gainerako oinarri ezargarriak, kondominioa iraungitzen den kasuetan, 60A ereduaren bitartez tributatu du, egintza juridiko dokumentatuen kontzeptuarengatik.

— Sozietateak desagitean soberazko esleipena izan bada eta soberakina zergari lotuta badago, soberakin hori 60T ereduaren bitartez zergapetuko da, eta gainerako oinarri ezargarria zergapetzeko 60S ereduaren erabilera, dagokion tasa aplikatuta.

— Egiaztatzeak izango dira, orobat, hitzarmen batzordeetan eta birpartzelazioetan gertatzen diren soberazko esleipenak.

— Heriotzagatik gertatzen diren usufuktu iraungitzeak ondare eskualdaketen kontzeptuarengatik zergapetu behar direnean, oinarri ezargaria kalkulatu da kontuan hartuta ondasunaren balio errealari aplikatzen zaion portzentajeak bat etorri behar duela usufuktua eratu zen momentuan zergapetu gabe utzi zen balioarekin. Aurkeztu beharreko dokumentazioaren artean, nahitaezkoak izango dira usufuktudunen heriotza-agiria eta usufuktua saldu edo eratzeko eskritura publikoaren fotokopia.

— Ondorengo kasuetan, egiaztatu beharko da bete egiten direla zergaz salbuesteko beharrezkoak diren baldintzak:

* Babes publikoko etxebizitzaren eraikuntzari dagokion salbuespenean (obra berria, zatiketa horizontala, hipoteka maileguak, etab), kontuan izan beharko da eraikinaren zer portzentaje erabili den babes publikoko etxebizitzetarako, salbuespena portzentaje horretan aplikatuko baita.

* Babes publikoko etxebizitzak partikularren artean eskualdatzen badira, salbuespenari begira frogatu beharko da eskuratzaila Eusko Jaurlaritzak izendatu duela, eta horretarako, erakunde eskudunaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

* Baloreen eskualdaketa dagokion salbuespenean, egiaztatu beharko da ondasun higiezinaren balioak ez duela gainditzen partaidetzak eskualdatzen dituen enpresaren aktiboaren %50 (aktibo hori merkatu balioaren arabera baloratua), edo, behin eskualdaketa eginda, eskuratzaila ez dela enpresaren jabea %50etik gorako portzentajea.

* Hipoteka maileguak berritzeko eskriturei aplikagarri zaien salbuespenean, egiaztatu behar da hipoteka bermeak ez duela inolako gehikuntzarik.

* Lehenetsuneko nekazaritza ustialekuei aplikatzen zaizkien zerga onurei dagokienez, beharrezkoa izango da agiri bidez frogatzea organo eskudunak lehenetsuneko nekazaritza ustialeku izendatu dituela.

Bosgarrena. Araubide juridiko aplikagarria.

— Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko araudia.

—/2012 Foru Agindua,aren(e)koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak zergen kudeaketan lankidetzan jarduteko era onartzen duena.

— 2010eko martxoaren 8an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialak zergak kudeatzeko izenpetutako lankidetzak hitzarmena.

Donostia, 2012ko azaroaren 26a.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua
Sin.: Helena Franco Ibarzabal

Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialeko lehendakaria
Sin.: José Antonio Arana García.



FORU AGINDUAREN III. ERANSKINA

ORDEZKARITZAK –001 EREDUA– INSKRIBATZEKO PROZEDURA TELEMATIKOAK

1. 565 eredu.

1.1. Formulario bidez aurkeztea.

001-CG eredia Ogasun eta Finantza Departamentuko borondatezko ordezkarien erroldan telematikoki inskribatzea eskatzeko, baietz erantzun behar zaio aplikazioak aurkezpen prozesuan egiten duen galderari. Ez da hala egin beharko, ordea, ahalmen nahikoaz emandako baimena aurretik inskribatu denean 001-P eredia erabilia.

1.2. Fitxategi bidez aurkeztea.

001-CG eredia Ogasun eta Finantza Departamentuko borondatezko ordezkarien erroldan telematikoki inskribatzea eskatzeko, aukera hori markatu behar da fitxategiko kasuan kasuko autolikidazioaren datuetan edo, bestela, «fitxategiaren balioztapenaren emaitza» pantailan. Ez da hala egin beharko, ordea, ahalmen nahikoaz emandako baimena aurretik inskribatu denean 001-P eredia erabilia.

2. 60T, 60A eta 60S ereduak.

001-CG eredia borondatezko ordezkarien erroldan telematikoki inskribatzea eskatzeko, aukera hori markatu behar da «likidazio proposamena» mezua bidaltzen denean. Ez da hala egin beharko, ordea, ahalmen nahikoaz emandako baimena aurretik inskribatu denean 001-P eredia erabilia.

FORU AGINDUAREN IV. ERANSKINA

KUDEATZAILE ADMINISTRATIBOEN 565 EREDUA AURKEZTEKO PROZEDURA TELEMATIKOA

1. Atarian sartzea.

Aurkezleak Gipuzkoataria zerbitzu telematikoen atarira jo behar du, sinadura elektronikoko balioztatua erabiliz (entitatearen ziurtagiri digitala). Ataria Foru Aldundiaren <http://www.gipuzkoa.net/ataria> helbidean kokatuta dago. Txartel kriptografikoa irakurgailuan sartuko du eta PIN zenbakia idatziko du bere burua identifikatzeko.

Behin identifikatuta, «565 ereduaren aurkezpen telematikoa» hautatu behar du. Zerbitzuan sartuta, «aitorpenen alta» edo «aitorpenen kontsulta» izango ditu aukeran.

Sarbidea baimenduta duten kudeatzaile administratiboek, gainera, 565 eredia fitxategi bidez bidaltzeko aukera ikusi eta erabil dezakete: «Sortu edo aldatu, telematikoki, 565 ereduaren aitorpenak».

2. Aitorpenen alta.

Formulario bidezko aurkezpena hautatuta, 565 ereduaren aitorpena bete eta aurkezpena baieztatzen da.

Fitxategi bidezko igorpena hautatuz gero, fitxategia hautatu eta erantsi behar da, hau sakatuta: «Inportatzeko fitxategia hautatu». «Bidali» aukera hautatu ondoren, sistemak bidalketa balioztatzen du, eta pantaila batean balioztapenaren emaitza erakusten du. Balioztatuta eta baimenduta dauden aitorpenak bakarrik hautatu daitezke bidaliak izateko. Emaita «ez ordaintzekoa» denean, posible da aurkezpenaren frogagiria lortu eta inprimatzea (interesdunaren kopia).

Emaita «ordaintzekoa» bada, aitorpena «aurkeztuta eta ordaintzeko zain» egoeran geratzen da behin-behinean, eta zuzenean joan daiteke aitorpenak ordaintzeko urratsera. Ordainketa hori banakakoa izan daiteke, aurkeztutako aitorpenarena; baina taldeka ere ordaindu daiteke, hau da, aitorpen batzuk batera hautatu eta ordainketa bakarrean sartu.

Ordainketa bat egiteko, dagokion aukera hautatu behar da, eta aitorpen bat edo batzuk aukeratu «ordaintzeko zain» daudenen artean. Behin taldea hautatuta, posible da «nire ordainketa» pasabidera joatea, bertan finantza entitate bat hautatzea, eta ordainketa egitea finantza entitate horrek diseinatutako banka elektronikoen sistema erabilia.

Ordainketa bat egin dela baieztatuta, taldeko aitorpenak «aurkeztuta eta ordainduta» egoerara pasatzen dira. Une horretantxe lortu eta inprimatu daitezke aurkezpenaren frogagiriak (interesdunaren kopia).

3. Aitorpenen kontsulta.

Aukera honen bidez, aurkeztutako aitorpenak kontsulta daitezke bilaketa irizpide batzuen arabera. Irizpide horiek betetzen dituzten aitorpenen zerrenda bistartzen da.

Aitorpen bakoitzari dagokionez, aukera hauek izango dira:

— Frogagiria ikusi: Interesdunaren kopia bistaratu eta inprimatzeko.

— Aitorpena aldatu edo baliogabetu: Aukera hau zilegi da ordaintzeko emaitza duten eta ordaintzeko zain dauden aitorpenen kasuan bakarrik.

— Ordaindu. Honek aukera ematen du ordainketa sisteman sartzeko, ordaintzeko emaitza duten eta «ordaintzeko zain» dauden aitorpen bat edo batzuk hautatuta.

— Ordainketa egiaztatu. Ordaintzeko emaitza duten eta «ordaintzeko zain» dauden aitorpenen kasuan, Ogasuna ordainketa egin denik seguru ez dagoenean, aukera hau hautatu daiteke. Horrela, Ogasunak berriro egiaztatuko du ordainketa egin den eta, ezin badu egiaztatu, aitorpena ordaintzean banku entitateak emandako NRC kode bat sar dezake aurkezleak; datu hori zuzena bada, Ogasunak ontzat emango du ordainketa.

FORU AGINDUAREN V. ERANSKINA

KUDEATZAILE ADMINISTRATIBOEN 60T, 60A ETA 60S EREDUAK AURKEZTEKO PROZEDURA TELEMATIKOA

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren autolikidazioak bide telematikoz aurkeztu, ordaindu eta bidaltzeko, «Eskualdaketen likidazioa» izeneko web zerbitzua erabili beharra dago. Tramiteak sinadura elektronikoko balioztatua erabiliz egingo dira, interesdunak aurrez baimenduta.

— «Autolikidazio proposamena»: Atxikitako kudeatzaile administratiboak «autolikidazio proposamena» mezua bidaliko du, 60 autolikidazio ereduaren kasuan kasuko edukiarekin.

Proposamena aztertuta zuzena dela iritzi gero, Ogasun eta Finantza Departamentuak onarpen erantzun bat bidaliko du.

— «Autolikidazioaren baieztapena»: Kudeatzaile administratiboak «autolikidazioaren baieztapena» bidaltzen du proposamenean jasotako datuekin. Emtza «ordaintzekoa» bada, «kontuan zorduntzeko agindua» jasoko du mezua. Autolikidazioa eragin duen agiri pribatua erantsiko da, halakorik bada.

Bere aldetik, Ogasun eta Finantza Departamentuak egiaztapen hauek egiten ditu:

1. Mezu honen edukia bat datorrela «autolikidazio proposamenean» jasotako datuekin.
2. Hala dagokionean, mezuan kontuan zorduntzeko agindua adierazi dela.
3. Hala dagokionean, mezuari autolikidazioa eragin duen agiri pribatua erantsi zaiola, edo, bestela, kudeatzaileak edo notarioak lehendik bidalitako eskriturak bere eskuetan dituela.

— Egiaztapen horiek guztiak egin ondoren «autolikidazioaren baieztapena» onartzen bada, aurkeztutako autolikidazio ereduarekin batera (60T, 60A edo 60S) onarpen erantzuna bidaliko da, eta erantzun horrek Ogasun eta Finantza Departamentuko sistema informatikoaren zigilu elektronikoa eramango du, aurkezpena egin dela frogatzeko.